

Txotxeko garai bete-betean gaudede, eta gure sagardotegietan ez da giro. Ongi dakigu Gipuzkoa'ko ostaturik nagusienak sagardotegiak izan zirala, ondo dakigu, atsedenaldirik aundienak eta ipui eta bertsorik ugariak sagardotegietan izan zituztela gure aurrekoak; baiña orain idartu zaigun moda au, ikusgarria da. Eta poztekoa dala esan bear, gure-gurea degun gauz bat indartu zaigulako. Ostiral-illuntze eta larunbatetan, sagardotegietan lekuri aurkitu eziñik alajaiñena jendea. Ez da arritzeko: sekulan sagardotegira etorri gabeko jendea, nola ipartar ala bilbaotar eta abar, erruz etorzen asi da-eta.

Euskaldunak irabazia nundik dagon, artara azkar zuzentzen ditu begiak, eta azken urtetan sagardotegi berriak zabaltzen ari zaizkigu. Besteak-beste, Usurbil'ko Agiña'n

Ez da giro sagardotegietan!

TXOMIN GARMENDIA

errastitarrak iriki duten sagardotegia ez degu nolanaikoa. Martxoaren 14'ean izan giñan lagun talde bat, eta egia esan bear badet, arritu giñan. Bagenekigun aspalditxotik langitza ortan ari zirala, pentsatzen gendun edozein modutakoa etzuztela jarriko; baiña alako sagardotegirik ikusterik etzitzaidan iñoiz bururatu. Zer da ura!

Sagardotegia baiño geiago ere zerbait badala esango nuke; upel artean bi barrika ardo ere badaude, sagardoa bezela txotxean, nai dun guztiarentzat. Barrika bat ardo beltzarekin eta bestea, gorriarekin. Arranek-ezik, egarriak kentzeko ba-

dago aukera. Aunditasunean eta txukuntasunean berriz, ez da erreza ari irabazten.

Garai batean dirua eskax zan gaurko aldean, txuletak ere ala zirala esango nuke nik; baiña gaur «Galizi'ko idi txuleta» izeneko ori ugalduta zaigu. Galizi'koak edo ez dakit nungoak izango diran, baiña gaur aibat txuleta eder etzan sekula jango. Sagardoak jana bear du; eta txuleta on bat parrillean erreta, pare-parean datorrela esango nuke.

Sagardotegietatik beste leku batera erten izan gera kapea artzera, baiña Agiña'ko berri ontan, ori ere bertan artu liteke ala nai izan, ezkerro

beintzat. Kutixi danak eskuetan alajaiña.

Eta, orain esango dedana ere ez da alderdirik txarrena: kotxea uzteko kezkarik ez. Gaur etxe bati orrek ematen dion aberastasuna ere ez da makala.

Onuzkero norbaitek esan du: Zer moduzko sagardoak daude? Sagardo bera samarrak daude oraindik. Obrak zirala eta egiten ere berandu ibilli omen ziran, baiña baliteke ontzen joatea.

Irakurle, izanda bazaude-edo, iñoiz izaten bazera sagardotegi berri ortan, arrazoi dedala esango didazu.

Agiña, angulakin egin zitzaigun pamatua; orain sagardotegiz aunditzea ez nintzake arrituko. Suerte on opa diegu errastitarrari, eta beste bat arte.